

# EUSKARAREN Berripapera

## aurkibidea

1

- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia udaletan

2

- **PERTSONAJEA:** Martin Ugalde
- **LABURRAK:** Euskarazko software dena katalogoan

*Dirukiak material didaktikoa*

Elkarlanean eta Erein argitaletxeek 25 urte

3

- Bost titulu berri *Literatura Unibertsala* bilduman
- Amodiozko Gutunen X. Berrigara lehiaketa

4

- Euskaraz katalogatzeko oinarritzko terminologia
- *Euskal Esaerak*, hizkuntzarekin jolasean

## Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia udaletan Plana garatzeko eskaria egin dute 34 herrik

**E**uskara Biziberritzeko Plan Nagusia udaletan aplikatzen hasi da Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Lehenengo aldiz Azpeitian aplikatuko da, baina beste 33 herrik ere egin dute plana garatzeko eskaria. Herri horien artean dira, esaterako, Irun, Arrasate, Basauri, Eibar, Bergara, Gernika, Hernani, Lasarte, Beasain, Gasteiz, Ondarroa, Andoain, Igorre, Sorraluze, Larrabetzu, Anoeta, Otxandio...

Euskara Biziberritzeko Plana, dena dela, ez da era bakarrean gauzatuko herri denetan, biztanle eta euskaldun kopuruaren arabera hamar eredu prestatu baititu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Eredu horien barne dira Gasteiz, Bilbo eta Donostia hiriburuak ere.

### Helburuen Hedapena programa

Lehen fasean, 5.000 biztanletik gorako herrietan eta euskaldunen kopurua %70 baino handiago den herrietan aplikatuko da. Egun, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 160 herri dira egoera horretan. Plana behar bezala garatzeko, hogeit hamar beharrek 41 ildo estrategiko finkatu dira, esparruz esparru. Egoera soziolinguistikoa eta biztanleen kopurua kontuan harturik, berriz, lehentasunezko esparruak ere zehaztu dira.

Helburuen Hedapena programaren bidez, gainera, lehentasunezko esparru bakoitzera esleitzeko moduko aurrekontu-portzentaiaren tarreak ere adierazi dira.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, bestalde, planaren jarraipen eta eboluzioa egiteko softwarea diseinatu du eta udalen eskura jarri. Softwarean, plangintzaren definizioaren oinarritzko informazioa sartu da, erabiltzaileak ekintzaz edo informazioz elika dezan. Programak, plangintza operatibora iristeko bideak eta baliabideak eskaintzen ditu.



ZALDI ERO




ZALDI ERO

### Planaren abiatzea Azpeitian

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia herri mailan lehenengo aldiz Azpeitian aplikatuko da, hain zuzen, herri hori 10.000 biztanletik gorako herrietan batz bestea euskaldun gehien duen herria delako. Planaren abiatzea ospatzeko asmoz, "Euskara, gu geu gara bidea" izeneko kanpaina abiarazi zuen Azpeitiko Udalak abendu hasieran, eta Patxi Altuna eta Patxi Goenaga euskaltzain azpeitiarrei omenaldia ere eskaini zien hilaren 2an, Euskararen Nazioarteko Eguneko jai eta ospakizunekin bat eginez.

# Laburrak

## Euskarazko software dena katalogoan



Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) egun euskaraz erabili daitezkeen software dena bildu du katalogo batean. Sarean da dagoeneko [www.ueu.org](http://www.ueu.org) helbidean eta bertan 100 produktu inguru jaso dituzte Iñaki Alegriak eta Susi Rodriguezek. Katalogoa zazpi sailetan banaturik dago: astialdia, hizkuntza, Internet, tresna orokorrak, irakaskuntza eta joko pedagogikoak, eta bestelakoak. Datu-base doakoa da eta software gehiago egiteko pizgarri izan dadin nahi dute UEUko arduradunek. Bestalde, produktu berriak sortu ahala, katalogoari erantsiko dizkiote.

## Dirukiak material didaktikoa

HABEK eta UZEIK, *Dirukiak* testuliburua prestatu dute euskaraz jakin arren lan-eginkizunak euskaraz egiteko ohiturarik ez duten finantza erakundeetako langileentzat. Liburua lau ataletan banaturik dator: *Baratze Finantzarioa*, *Finantzazain Automatikoa*, *Harreman Finantzarioak* eta *Azoka Finantzarioa*, eta horietan eguneroko terminologia, kutzazainak erabiltzeko instrukzioak, aholkularitza eta burtsa lantzen dira, euskaraz.

## Elkarlanean eta Ereinek 25 urte

Zilarrezko Ezteiak ospatu dituzte Erein argitaletxeak eta Bilintx liburudendak eta Zabaltzen banaketa enpresak. Ereinek euskarazko literatura, saiakera eta hezkuntza-liburua indartzen egin du lan, batez ere.

Euskalgintza Elkarlanean Fundazioak, berriz, erakundea indartzen eta, aldi berean, euskararen gizartea sendotzen saiatu da eginahalean liburudenda-sare eta enpresa banatzailearen bidez.



## PERTSONAJEA

### Martin Ugaldek bere herria helburu



MANU MUJICA

**M**artin Ugalderi buruzko jardunaldiak egin ziren joan den azaroan, Donostian eta Andoainen. Bernardo Atxaga, Txomin Peillen, Jose Angel Ascunze, Anjel Lertxundi eta beste hainbat irakasle eta idazle bildu ziren *Martin Ugaldek bere herria helburu* izeneko jardunaldietara.

1921ean Andoainen jaioa, bertan bizi izan zen Martin Ugalde Espainiako Gerra Zibilak familia dena atzerrira bidean jarri zuen arte. Venezuelan izan ziren Ugaldetarrak 1947az gero, eta bertan zaildu zen kazetari eta idazle. 1955ean, *El Nacional* egunkariak antolatu zuen Narrazio Laburren Lehen Saria irabazi zuen, "Un real de sueño sobre un andamio" ipuina idatzirik, eta handik bi urtera lehen ipuin bilduma argitaratu zuen, narrazio labur haren izenburu berdinez. Venezuelan bertan zegoela hasi zen euskarazko literatur lanak sortzen, ipuinak (*Iltzalleak*, 1959), antzerkia (*Ama gaxo dago*, 1964), haurrentzako ipuinak (*Umeentzako kontuak*, 1966), eta kazetaritza lanak.

1969an itzuli zen Euskal Herrira, Hondarribian hartu zuen etxea. *Zeruko Argia*-n eta Euskaltzaindian lagundu zuen. 1973an atzera atzerrira behartu zuen poliziak. Hiru urte eman zituen Iparraldean. 1976an itzuli zen. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Euskarazko Arazoetarako zuzendari izendatu zuten 1982an. Karguak eta ardurak gorabehera, Martin Ugalde beti bizi izan da idazteari emana. Hainbat eta hainbat dira idatzi dituen liburuak, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz ere, historia, literatura, eta kazetaritza landuz. *Itsasoa ur bazter luzea da*, *Hablando con los vascos*, *Síntesis de la Historia del País Vasco*, *El libro blanco del euskera*, *Mantal urdina*, *Bihotza golkoan*, *Itzulera baten historia*, ETBrako "Euskaldunek hitza..." elkarriketa sorta...

Martin Ugalderen lanak askotariko sari eta goraiamenak irabazi ditu. Besteak beste, Eusko Jaurlaritzak, Euskaltzaindiak, Euskal Herriko Unibertsitateak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Andoingo herriak, Euskaldunon Egunkariak eta beste hainbat erakunde eta elkartek ohoratu dute Ugalderen leialtasuna. 2001eko Euskadi Literatura Sariaren banaketa-ekitaldian bertan ere, Martin Ugalderen bizitza eta lana goratu zituen Ibarretxe lehendakariak.



Guareschi, Valle-Inclan, Jan Neruda, Bulgakov eta Ionesco

Bost titulu berri *Literatura Unibertsala* bilduman

**B**ost liburu berri argitaratu ditu Ibaizabal argitaletxeak *Literatura Unibertsala* bilduman, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretaren Elkartearekin (EIZIE) elkarlanean eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren babesean: Giovannino Guareschiren *On Camillo*, Ramon Maria del Valle-Inclanen *Buhamen-argiak*, Jan Nerudaren *Mala Stranako ipuinak*, Mikhail Afanasievitx Bulgakoven *Txakur-bihotza*, eta Eugene Ionescoren *Abeslari burusoila*. Koldo Biguri, Anastasio Esnaola, Fernando Rey, Jose Morales eta Jon Muñoz izan dira itzultzaile, hurrenez hurren.

Lan argitara berriek *Literatura Unibertsala* bildumako 90, 91, 92, 93 eta 94. tituluak ditugu eta, ondorioz, sei liburu geratzen dira 100. zenbakira iritsi eta asmoaren lehen zikloa amaitzeko. Sei liburu horiek 2002. urtean argitaratuko dituzte EIZIEK eta Ibaizabal argitaletxeak.

**Idazle handiak**

Jonathan Swift-en *Gulliver-en bidaiak* liburuak ireki zuen *Literatura Unibertsala* bilduma 1991n, eta hainbat idazle handiren lanak argitaratu dira bertan harrezkeror. Besteak beste: Txekhov, Stevenson, Gide, Goethe, Cortazar, Garcia Marquez, Camus, Flaubert, Woolf, Pavese, Dos-toievski, Montesquieu, Grass, Steinbeck,

Dickens, Lermontov, Capote, Duras, Chesterton, Andersen, Borges, Dos Passos, Saramago...

Oraingo honetan ere bost idazle handiren lanak argitaratu dituzte. Adibidez, Giovannino Guareschik (Parma, 1908 - Cervia, 1968), erabateko arrakasta izan zuen *On Camillo* eta Pepponenen istorioen bidez. Izan ere, Pinocchiorikin batera, Italiako literaturak sortu dituen pertsonajerik ezagun eta unibertsalenak dira Koldo Bigurik euskaraz eman dituen *On Camillo* eta Peppone.



GIOVANNINO GUARESCHI



RAMON MARIA DEL VALLE INCLAN



JAN NERUDA



MIKHAIL AFANASIEVITX BULGAKOV



EUGENE IONESCO

Valle-Inclan (Galizia, 1866 - 1936) antzerki berritua egiten saiatu zen, esperpentoa izena eman zion egileak berak, eta bizitasun, pipermin eta ironiaz gainezka daude haren lanak. *Buhamen-argiak* izan zen oraintxe Anastasio Esnaolak euskarara itzuli duen egile

galegoaren obrarik ezagunena.

Jan Neruda (Praga, 1834 - 1891), txekierazko literaturako idazlerik handienetakoa da. Fernando Rey euskaratu duen liburuan, egileak Pragako auzo Mala Stranako giroa eta jendea deskribatzen ditu, bertako arazo eta sufrimenduak, dela heriotza, pobrezia, bakardadea eta beste.

Bulgakov (Kiev, 1891 - Mosku, 1940), satiraz baliatu zen erregimen sobietarraren akatsak salatzen. *Mai-sua* eta *Margarita* du lanik ezagunena, *Turbindarren egunak* drama eta *Uharte urrekara* komediarekin batera. Jose Morales Beldak itzuli berri duen *Txakur-bihotza* lana, hortaz, egilearen libururik onena ez izanda ere, goi mailako literatura dugu, eta autorearen estiloa eta pentsamendua ezagutzeko guztiz baliagarria.

Eugene Ionesco (Errumania, 1909 - Paris, 1994), Frantziar hazi zen eta frantsesez idatzi. "Absurdoaren antzerkia" sortu zuen 1950ean, *Abeslari burusoila*, Jon Muñozek itzuli berri duen lan klasikoaz.

## Amodiozko gutunen X. Berrigara lehiaketa



Bergarako Jardun euskara elkarteak Amodiozko Gutunen X. "Berrigara" Lehiaketaren deialdia egin du. Aurten, X. edizioa dela eta, sari handiagoak agindu dituzte antolatzaileek. Lehiaketan 1987an edo lehenago jaiotakoek har dezakete parte, eta maitasunezko eskutitza aurkeztu. Lanek ez dute bi orrialde baino luzeago izan behar, eta e-postaz ere bidali ahalko dira. Harremanetarako: [jardun@topagunea.com](mailto:jardun@topagunea.com) helbidea. 2002ko urtarrilaren 9an itxiko da lanak jasotzeko epea eta sari ematea otsailaren 14an egingo da, Bergarako Gartzela Zaharrean.

